



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN  
UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA  
DE  
ARRANKUDIAGA  
(BIZKAIA)

## **2019KO UZTAILAREN 11AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

---

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

=====

### **ALKATEA**

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

### **ALKATE ORDEAK**

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)  
Bigarren alkate ordea, Mainer Birtxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

### **ZINEGOTZIAK**

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)  
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)  
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)  
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)

### **IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA**

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2019ko Uztailaren 11an, 16:05ak izanik, hasiera ematen zaio ez-ohiko osoko bilkurari.

### **1. EKAINAREN 26AN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURTZEA ETA HORRELA BADAGOKIO, ONARTZEA.**

Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión extraordinaria celebrada el 26 de junio de 2019.

Udal batzak aho batez onartzen du ekainaren 26an egindako ez ohiko bilkuraren akta.

La corporación aprueba por unanimidad el acta de la sesión extraordinaria del 26 de junio de 2019.

## **2. 2019 URTERAKO UDAL AURREKONTUEN EZTABAIDA ETA HORRELA BADAGOKIO HASIERAKO ONARPENA.**

**Debate y, si corresponde, aprobación inicial de los presupuestos municipales para el año 2019.**

Jesus M<sup>a</sup> Ariznabarreta Zubero alkate jaunak (EH Bildu), azaltzen du honezkero aurrekontuen proposamena eztabaidatu egin dela lantalde batean eta era berean irizpena jaso dela Kontu batzorde berezian. Beraz, eman beharreko azalpenak emanda daudela eta onartzera ekartzen dituztela aurrekontuak.

Josu Beaskoetxeak (EAJ/PNV), bere talde politikoaren kontrako jarrera azaltzen du Oxinburuko proiektua dela eta. Aurrekontuetan 80.000 € agertzen dira proiektu horretarako, 60.000 seigarren kapituluan inbertsioetan eta beste 20.000 bigarren kapituluan azterketa eta ikerketa teknikoen atalean. Euren ustez, proiektu hori ez dago behar bezala zehaztua, gaur egunean ez dutela ikusi ez finantziario plana ezta ze nolako baliabideak behar izango dira proiektu hori aurrera eramateko.

Beraz, inbertsioetarako kapituluan jasota dagoen dirua beste eginkizun batzuetara bideratzea proposatzen dute boto partikularra aurkeztuz. Euren proposamena da:

- Caminos rurales: 30.000 €
- Saneamendua: 10.000 €
- Iberlanda inguruan egin behar den desjabetzea dela eta, gero aparkaleku plazak egin ahal izateko:20.000 €

Proposamena egin ondoren, bozkatzera pasatzen da. Lehenengo eta behin EAJ/PNV udal taldeak egindako proposamena (boto partikularra) bozkatzeko da. Proposamen horren 3 aldeko boto jasotzen ditu, EAJ/PNV udal taldeko kide guztiena eta 4 kontrari, EH Bildu udal taldeko kide guztiena. Beraz, EAJ/PNV udal taldearen boto partikularra ez da onartzen.

Bozketa hori egin ondoren, alkate jaunak aurkeztutako eta kontu batzorde bereziaren aldeko irizpena jasotako, aurrekontuen proposamena bozkatzeko da. Proposamenaren alde EH Bildu udal taldeko 4 kideek bozkatzeko dute eta EAJ/PNV-ren udal taldeko kideak abstenitu egiten dira.

Ondorioz, 2019 ekitaldirako udal aurrekontuaren proposamena behin behinean onartzen da. Jarraian Bizkaiko Aldizkari ofizialera oharra bidaliko da, jende aurreko izapideari bidea emanez.

Eta jorrazteko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko uztailaren 11an, 16:20etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 16:20 horas del 11 de julio de 2019. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**